



**Arartekoaren 2016R-57-16 Ebazpena, 2016ko abenduaren 22koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatzen zaio turismo-ibilgailuan garraio zerbitzu publikoa emateko txartel baten esku-aldaketaren baimena berrikusteko, baita administrazio prozedura orokorra ere.**

### Aurrekariak

1. (...) andreak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan Arabako Foru Aldundiko Garraiobide, Bide-azpiegitura eta Mugikortasun Sailak erantzuten ez ziolako (...) jaunaren egoera araugabea delako jarritako salaketari. Horrek bi udal lizentzia ditu eta dagozkion garraiobide publikoko txartelen baimenak turismo-autoan bidaiariak eramateko (aurrerantzean, taxia); Lagran eta Urizaharra udalerrietakoak dira horiek, hurrenez hurren.

Pertsona honek adierazi du pasa den 2015eko irailaren 29an salaketa bat jarri zuela aipatutako baimenen legez kontrako existentziagatik, ulertzen zuelako pertsona fisiko batek ezin zituela bi taxi baimen izan, Turismo Ibilgailuetan Bidaiarien Hiri eta Hiri Arteko Garraio Publikoaren ekainaren 29ko 2/2000 Legeak aurreikusitakoaren arabera.

Gai hori idatziz errepikatu zen 2015eko abenduaren 22an. Gainera, idazki horren bidez, eskatu zuen egitate baliogabeak berrikusteko prozedura bat hasteko; hala, uste du baimenak indargabetu behar direla, beste baimen baten titular ez izatearen betekizuna ez betetzeagatik.

Azkenik, data berean kexagileak Arabako Foru Aldundiko Garraio Zerbitzuak 2015eko azaroaren 17an bidalitako txostenaren kopia eskatu zuen. Txosten hau Urizaharreko Udalaren 2015eko abenduaren 18ko ebazpena oinarritu zuen, bere garaian (...) jaunari emandako taxi lizentziaren esku-aldaketari dagokiona.

2. Arabako Foru Aldundiko Bide-azpiegitura eta Mugikortasuneko foru diputatuak Arartekoak egindako informazio-eskaerari erantzun zion; dokumentazio hau aurkeztu zuen:
  - Bide-azpiegitura eta Mugikortasuneko zuzendariaren otsailaren 5eko 275/2016 Ebazpena. Horren bidez, (...) andreak aurkeztutako salaketa ebatzi zen, (...) jaunak turismo-ibilgailuetan bidaiariak garraiatzeko dituen bi udal lizentzietan eta bi baimenei buruzkoa.
  - Arabako Foru Aldundiko Garraiobide Zerbitzuko Baimenak Kudeatzeko eta Ikuskatzeko ataleko buruak 2015eko azaroaren 17an igorritako txostena, Urizaharreko lizentziaren esku-aldaketari eta taxi baimenari buruzkoa.
  - Urizaharreko Alkatezaren 2015eko abenduaren 15eko ebazpena; horren bidez, (...) jaunaren taxi-lizentzia eskuz aldatzea baimentzea.





Errepikakorrak ez izatearren, gogoeten hurrengo atalean zehaztasunez aztertuko dira kexak adierazitako alderdiak eta foru erakundearen erantzuna.

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, lege-esparrua eta autotaxiko garraiobide-txartelen hiri-lizentziei eta baimenei aplikatu beharreko eskumenen multzoa aipatu behar dira, Arabako Foru Aldundiak adierazitako terminoetan.

Bide Azpiegituretako eta Mugikortasuneko zuzendariaren 275/2016 Ebazpenak arlo honetan dagoen arazoa azpimarratzen du, legeria desberdinen konkurrentzia dela-eta. Horregatik, azpimarratzen du beharrezkoa dela hauxe egitea: *"hacer una mención a la normativa aplicable, en especial teniendo en cuenta que en relación con los transportes públicos realizados en vehículos de turismo, existe una concurrencia de legislaciones estatal y autonómica que en ocasiones acarrea problemas jurídicos de difícil solución, y como más adelante se detallará, la invasión de competencias debido a excesos normativos, precisamente tampoco ayuda en nada a dar seguridad jurídica al marco normativo aplicable."*

Testuinguru horretan, foru erakundeak uste du euskal erkidego-araudia ez zaiola salatzailearen erreklamazioari aplikatu behar; izan ere, estatu mailako turismo-ibilgailuetako hiri-garraioko baimenak dira. Hala, titulu horiek Lurreko Garraiobideak Antolatzeke uztailaren 30eko 16/1987 Legean jasotako estatu mailako araudiak eraentzen ditu, irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren bidez onartutako arautegian eta gainerako garapen-araudian, bereziki Obra Publiko eta Garraiobideetako Ministerioaren 1993ko otsailaren 4ko agindua. Hori guztia, eskumenen konstituzio-banaketaren eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera. Ikuspegi hori babestuz, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 27ko 118/1996 Epaia aipatzen du; horrek garraiobide pribatuen eskumen-esparrua definitu zuen, besteak beste, taxiena.

Hiriko garraiobideei dagokienez, foru erakundeak adierazi du aipatutako Konstituzio Auzitegiaren Epaiak erkidegoaren eskumenekoak direla jotzen duela; izan ere, autonomi erkidego bakar baten lurraldetik igarotzen dira osorik. Horrenbestez, foru erakundeak uste du hirian bidaiariak turismo-ibilgailuetan (taxiak) garraiatzeko zerbitzu publikoa emateko udal lizentziak ematen dituzten udalek, Konstituzioaren eskumen-banaketaren arabera, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legean eta urriaren 15eko 243/2002 Dekretuak onartutako arautegian jasotako erkidego-araudia jarraitzen dutela.

Garraiobide-lizentziak emateaz eta indargabetzeaz gain, udalei dagokie hiri-zerbitzu horiek planifikatzea, ikuskatzea eta zehatzea; tarifak ezartzea eta gidarien gaitasuna egiaztatzea, baita zerbitzua arautzen duten udal ordenantzak sortzea eta onestea ere (2/2000 Legearen 3.3. artikulua).





Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik osorik igarotzen diren turismo-ibilgailuen bidezko hiri arteko garraiobide pribatuei dagokienez (2/2000 Legearen 1. artikulua), foru erakundeak hauxe uste du: *"deben de tomarse con mucha cautela vista la doctrina del Tribunal Constitucional, y ciertamente, tal regulación induce a confusión y no ayuda en modo alguno a dar seguridad jurídica."*

Foru erakundeak adierazi du erkidego-baimen horiek ez direla inoiz praktikan jarri, Eusko Jaurlaritzak ez dituelako inoiz horiek gauzatzeko beharrezkoak diren garapena eta instrumentazioa onetsi. Existitzen den gauza bakarra dira estatu mailako turismo-ibilgailuetan hiri arteko garraio publikoko zerbitzua emateko baimenak; horien bidez, EAEko lurraldetik kanpo eta horren barruan hiri arteko garraioko zerbitzu publikoa eman daiteke. Hala, Konstituzioaren eskumen-banaketaren arabera, Lurreko Garraiobideak Antolatzeko uztailaren 30eko 16/1987 Legean jasotako estatu mailako araudia jarraitzen dute eta aurretik aipatutako gainerako garapen-araudia ere bai. Arabako Foru Aldundiak estatu mailako baimen horiek ematen ditu uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren xedapen gehigarriaren arabera.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiak ondorioztatzen du 2/2000 Legean eta 243/2002 Dekretuan jasotako erkidego-araudia ezin zaiela aplikatu foru erakundeak estatu mailako turismo-ibilgailuetan hiri arteko garraio zerbitzua eskaintzeko ematen dituen baimenei. Estatu mailako araudiak arautzen dituelako. Hala eta guztiz ere, taxiaren udal lizentziaren eta hiri arteko garraiobide-baimenaren artean dagoen lotura estua kontuan hartuta, horren edukiaren alderdi batzuek nahitaez eramaten dute estatu mailako baimenetara.

Foru erakundeak azaldutako esparru juridikoa konplexua da; horrez gain, aldundiak adierazi du kontraesanak daudela. Izan ere, gai honetan, lurralde berean erkidego-araudiaren eta estatu mailako araudiaren eskumenak elkartzen dira. Hori dela-eta, Konstituzio Auzitegiaren Jurisprudentzia finkatura jo behar da; horrek gai horren inguruan gogorarazten du beharrezkoa dela neurriak hartzea hasiera batean bateraezina dela ematen duena bateratzeko lurralde berean zenbait araudi daudenean. Besteak beste, hori adierazi du Konstituzio Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 22ko 15/1998 Epaiak (3. oinarri juridikoa): *"En definitiva, la concurrencia competencial no puede resolverse en términos de exclusión, sino que ha de acudir a un expediente de acomodación e integración de los títulos competenciales -estatal y autonómico- que convergen sobre un mismo espacio y que, por ello mismo, están llamados a coexistir [STC 103/1989, fundamento jurídico 7º a)]."*

Erakunde honek ez ditu aztertuko Arabako Foru Aldundiak eskumenei buruz esandako kontuak estatu mailako garraiobide-baimenak erkidegoko garraiobide-baimenekin bateragarriak izatearen inguruan eta Arabako Lurralde Historikoan erkidego-araudia indarrean sartu zenetik ezarri ez izanaren inguruan. Izan ere, Arartekoak uste du ez dela beharrezkoa horiek aztertzea





kexaren xedea ebazteko. Hurrengo ataletan garatuko den bezala, argitu beharreko gaiaren funtsa ebazteko, eskumen-titulu desberdinen integrazioa koherentziaz aztertu behar da, hiri arteko garraiobide-baimenak (estatu mailakoa edo erkidegokoa aplikatzea gorabehera) hiriko udal lizentziekin duen harreman estuak indartuta. Horietarako, nahitaez aplikatu behar da erkidego-araudia.

2. Aurreko atalean aipatu den Konstituzio Auzitegiaren Jurisprudentzia gorabehera, prozedura orokorraren berezko alorrean ere kontu horiek azpimarratzen dira. Hala, herri administrazioek bere jarduketan zuzenbidearen printzipio nagusiak aplikatu behar dituzte administrazioen arteko harremanetan, bereziki, koordinazioko eta lankidetzako printzipioak. Printzipio horiekin bat, herri-administrazio guztiek arlo berean diharduten gainerako herri-administrazioen jardunen koherentzia bermatu behar dute, interes publikoko xede komunak lortze aldera. Horretarako, administrazio orok euren eginkizunak koordinatuko dituzte, eta eskumenak baliatuz eta ukitutako interes publiko guztiak ondo neurtuz [Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 140.1. artikulua c) eta e) atalak].

Estatuko araudiak eta erkidegoko araudiak prozedura espezifiko bat aurreikusten dute, lizentzia eta baimen horien arteko beharrezko harremana adierazi dutenak. Horrez gain, adierazi dute prozeduran esku hartzen duten herri-administrazioen arteko koordinazio egokiaren inguruko kezka.

Obra Publiko eta Garraioen Ministerioaren 1993ko otsailaren 4ko aginduaren 44.1. artikulua haxe xedatzen du: *"Como regla general, deberá realizarse conjuntamente la solicitud de la autorización de transporte público interurbano y de la licencia municipal de autotaxis. Dicha solicitud conjunta habrá de presentarse ante el Ayuntamiento competente para el otorgamiento de la citada licencia municipal"*.

Bestalde, aipatutako aginduaren 46. artikulua adierazi du autotaxien udal lizentziaren eta hiri arteko garraiobide-publikoko baimenaren baterako eskaera jasotzen duen udalak hori bidaliko diola, dagokion dokumentazioaren kopia batekin batera (Gizarte-segurantzaren afiliazioa; Enpresa-jardueren gaineko Zergaren ordainagiria; udal lizentzia, etab.), hiri arteko garraiobide publikoko zerbitzuaren baimena emateko eskuduna den organoari. Organo horrek, eskaintzaren egoera eta garraiobidearen eskaera kontuan hartuz, ukapenaren edo emakidaren inguruko informazio loteslea emango du. Hala ere, bigarren kasu horretan, emakida udal-lizentzia jasotzen bada gauzatuko da.

Zentzu berean, erkidego mailan, 243/2002 Dekretuaren 12. artikulua haxe ezartzen du: *"Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa emateko, oro har, ezinbestekoa izango da lehenengo bidaiariak herri barruan kotxez garraiatzeko udal-lizentzia eskuratzea, eta ondoren, herriz kanpoko garraiorako foru aldundiaren baimena lortzea. Herri*





*barruko garraiorako lizentzia eta herriz kanpoko garraiorako baimena, biak batera eskatu ahal izango dira kasuan kasuko udalean”.*

Erkidegoko araubideak hauxe gehitzen du 12.2. atalean: *“Eskaria jasotzen duen udalak, eskaria eta aurkeztutako agiriak herriz kanpoko garraiorako baimena eman behar duen foru aldundira bidaliko ditu. Foru aldundi horrek, kopuru mugatu bat ezarri bada eta artean kopuru hori bete ez bada, bi hilabeteko epea izango du baimena ukatu edo ematearen aldeko den adierazteko.”*

Azkenik, Arautegiaren 12.4. artikulua ezartzen du udalak udal lizentziaren emakida edo ukapena jakinaraziko diola foru aldundi eskudunari. Hala badagokio, horrek hiri arteko eremurako baimena emango du.

Bi arauketa horietan egiazta daitekeen bezala, prozedura bat ezartzen da; hori zenbait fasetan oinarritzen da. Eskematikoki, hauxe da prozedura hori:

- Eskaera udalean, espedientea foru aldundiari bidaliz.
- Foru aldundiaren txostena baimenaren jatorriaren inguruan (bestek beste, garraibide beharrak eta kupoak kontuan hartuta).
- Udal lizentzia ematea eta foru aldundiari jakinaraztea.
- Hiri arteko eremurako foru baimena, erkidegoko eta estatuko arauketaren kasuan; baimena lortuko da udal lizentzia eskuratzekotan.

Laburbilduz, gaitutako prozedura orokorrekin, administrazio eskudunen arteko koordinazioaren bidez, bakoitzak bere eskumenen alorrean, emaitza zehatz bat lortzea bermatu nahi dute, hau da, udal lizentziak garraibide-baimenik gabe ez ematea, eta alderantziz.

Izan ere, Arabako Foru Aldundiak 2015eko azaroaren 17ko txostenean, Baimenen Ikuskapen eta Kudeaketa Ataleko buruak Urizaharreko alkate-presidenteari taxi-lizentzia baten esku-aldaketa egiteko jarduteko moduari buruz bidalitakoa, funtsean udal lizentziaren eta hiri arteko garraibide-baimenaren arteko beharrezko koordinazioa bermatzeko izapideak barne hartzen ditu.

3. Aurreko testuinguruan eta kontuan hartuta hiriko eremuan eskumena erkidegoarena dela, ez legoke kontraesanik egon beharko, behin bi administrazioen arteko koordinazio egokia bermatuta. Hala eta guztiz ere, praktikan, aztertu egin den bezala, lortutako emaitzak erakusten du administrazioen jarduketetan integrazioerik eta bateragarritasunik ez dagoela.

2/2002 Legearen 8. artikulua honela dio: *“Lizentzia eta baimenek, bidaiariak kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa emateko, titular bakarra, gidari bakarra eta kotxe jakin bakarra baimenduko dute, eta, lizentzia edo baimena emango bada, hiru horiek araudiz ezarritako eran zehaztu beharko dira. Pertsona bera ezingo da, inola ere, lizentzia bat baino gehiagoren titular izan.”*





Arabako Foru Aldundiak horren inguruan adierazi du egiaztatu egin dela, gaur egun, (...) jauna autotaxiko bi udal lizentzien titularra dela; bata Urizaharreko Udalak eman zuen 1992an (2/2000 Legea eta 243/2002 Dekretua baino lehen) eta bigarrena Lagraneko Udaleko Osoko Bilkurak eman zuen 2004ko abenduaren 13an; horretan, taxi lizentzia eman zen aurkeztutako eskaintza bakarra zelako.

Hala ere, hori ez da horrela Urizaharreko Udalak emandako informazio osagarritik ondorioztatzen denez, erakunde honi hasiera batean emandako espedientean eta Lagraneko Udalak emandako espedientean ikusitako kontraesanak kontuan hartuta.

Hain zuzen ere, Lagraneko Udalak igorritako espedientean, besteak beste, dokumentu hauek agertzen dira:

- Arabako Foru Ogasunaren ziurtagiria (2005eko maiatzaren 20koa) (...) jaunarena: "TIT: \*Urizaharra\*; 721.200 1. epigrafean (autotaxien bidezko garraiobideak); baja emanda zegoen 2004ko azaroaren 18tik.
- Interesdunaren aitorpena, bere erantzukizunpean; 2004ko azaroaren 22an, sinatzen duena ez dela autotaxi lizentzia baten titularra. Hori guztia, 243/2002 Arautegiaren 6.1.b artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Urizaharreko Udalaren baimena (...) jaunaren taxi lizentzia bere emaztearen alde aldatzeko.

Aurrekoa bat dator Urizaharreko Udalak bidalitako dokumentazio osagarriarekin, hau da:

- (...) jaunaren 2004ko azaroaren 15eko eskaera; horren bidez, taxi lizentzia bere emaztearen alde aldatzeko eskatu zuen, irabazpidezko ondasunen gozamen gisa. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiak dagokion garraiobide-txartela igortzeko eskatu zuen.
- Urizaharreko Udalaren 2004ko azaroaren 16ko baimena eskatutako lizentzia aldatzeko.

Hortaz, 2004ko abenduaren 13an, (...) jaunak taxi udal lizentzia bakar baten titularra zen, Lagraneko lizentziarena. Hala, ez zen Urizaharreko taxi lizentziaren titularra. Ebazpen honetan ez dugu sakonki aztertuko udal lizentziaren azkenengo esku-aldakea horren baliagarritasuna; izan ere, Urizaharreko Udalaren aurrean izapidetzen ari den beste kexa-espediente batean aztertuko da. Hala ere, egia da, data horretan, Arabako Foru Aldundiak (...) jaunaren alde igorritako estatu mailako garraiobide-baimena indargabetuta egon behar zela. Izan ere, une hartan titularrak ez zuen nahitaezkoa den udal lizentzia bere izenean (beste ez-betetze batzuez gain; estatu mailako araudia aplikatzearen ikuspegitik soilik ere, besteak beste, dagokion Enpresa-jardueren gaineko Zergaren epigrafean altan emanda egotea).





Aurreko gogoetan adierazi den bezala, egoera hori saihestu ahal zen estatu eta erkidego mailako araudiek eskatzen duten izapidetze-prozedura bateratua burutu izan bazen. Ondorio horietarako, alega daiteke foru aldundiak ez zuela egitate horien berri izan Urizaharreko Udalak ez zituelako bere betebeharrak bete. Hala eta guztiz ere, erakunde honen ustez, aldundiak jarduketa hauek beste modu batez egiaztatzeko eta horren arabera jarduteko dituen mekanismoez gain (bisak, adibidez), udalek ere egin dezakete eta erkidegoko araudiaren aurreikuspenek ez diote foru erakundeari eragiten. Izan ere, horrek bere eskumena baino ez du gauzatzen, estatu mailako araudia aplikatuz. Horrek ikusten diren disfuntzioetara eramaten du, foru erakundeak berak ikusten dituenak.

2004ko abenduan, (...) jauna ez zen Urizaharreko lizentziaren titularra; orduan, erkidegoko araudia udal lizentziaren eta eskuz aldatzeko aukeren ondorioei aplikatu behar zitzairen, zehazki, 243/2002 Dekretuaren 10.3. artikulua aplikatu behar zitzairen. Horrek ezartzen du pertsona bera ezin dela "lizentzia eta baimen bat baino gehiagoren titularra izan". Orduan ere aplikatu behar zen eskuz aldatu ezin diren lizentzien inguruko aurreikuspena, 2/2000 Legearen 8.2. artikuluan jasotzen diren ezohiko kasuak izan ezik. Foru aldundiak adierazi du, ondorio horietarako, arauketa horrek erkidegoko baimenak soilik aipatzen dituela eta ez Arabako Foru Aldundiak ematen dituen eta estatu mailako araudiak arautzen dituen estatuko baimenak.

Hala ere, foru erakundeak aipatu duen estatuko arauketa aztertuko dugu. Irailaren 28ko 1211/1990 Legegintzako Errege Dekretuak Lurreko Garraiobideak antolatzeke Legearen Arautegia onartu zuen. Zehazki, arautegiaren 118.2. artikulua haxe adierazi du: *"Las autorizaciones de transporte de viajeros en vehículos de turismo serán transmisibles cuando lo sean asimismo las licencias habilitantes para la realización de transporte urbano en esta clase de vehículos."*

Bestalde, arautegi beraren 123. artikulua haxe adierazi du:

*"El otorgamiento de las autorizaciones habilitantes para la realización de transportes discrecionales interurbanos en vehículos de turismo estará condicionado a que el solicitante sea previamente titular de la licencia municipal que habilite para la prestación de la misma clase de servicios en el ámbito urbano.*

....

*La pérdida o retirada por cualquier causa legal de la licencia de transporte urbano dará lugar a la cancelación de la autorización habilitante para la realización de transporte interurbano, salvo que se den las circunstancias previstas en el artículo siguiente."*

Horregatik guztiagatik, foru aldundiak, estatu mailako garraiobide-txartelen kasuan ere, udal lizentzia eskuz aldatu ahal bada eskuz aldatuko ditu soilik. Hala, bi arauketak aplikatuko ditu, udal lizentziaren aurretiazko eskuraketaren





inguruko egoera egiaztatu ondoren. Laburbilduz, estatuko araudiak pertsona berari estatu mailako garraio-bide-txartel bat baino gehiago baimendu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko udal lizentzien arauketak udal lizentzia bat baino gehiago izatea eragozten du. Hala, ez dago kontraesanik gai horren inguruan eta gure lurraldeko autotaxi lizentzien titularrak garraio-bide-txartel bakar baten titularrak izan daitezke, aipatutako erkidegoko araudia indarrean sartu zenetik.

Horrela, lizentzia (...) jaunaren emaztearen alde eskuz aldatu zenean, erkidego mailako araudia indarrean zegoen. Hortaz, bere izenean zegoen estatuko garraio-bide-txartela ere indargabetu behar zen, interesdunak udal lizentziarik ez zuelako Urizaharran. Ezin da ulertu foru erakundeak egoera horren berri ez izatea; sumatu daiteke Urizaharreko Udalak ez ziola foru erakundeari izapidetutako administrazio-espeditentea igorri, egin behar zuen bezala, eta ez zuela egindako esku-aldaketaren berri izan. Hala ere, foru erakundeak bere erregistroen bitartez egiaztatu behar zuen egoera hori, Lagraneko Udaleko espeditentea izapidetuz. Izan ere, jakin bazekien orduan indarrean zegoen araudiak udal lizentzia bakar bat izatea ezartzen zuela, eta horrenbestez, garraio-bide-txartel bakar bat ere bai.

Aurreko irregulartasunetan sakonduz, 2005eko urtarrilaren 19an, (...) jaunak Urizaharreko taxi lizentzia eskuratu zuen berriz ere, bere emazteak berriz eskatu zuen lizentzia bere alde aldatzeko. Hala eta guztiz ere, data horretan pertsona horrek ezin zuen Urizaharreko taxi lizentzia eskuratu 2004ko abenduaren 13an Lagraneko Udalean eskuratutako lizentzia zeukalako. Horrenbestez, 2015eko urtarrilaren 19an Urizaharreko Udalak emandako lizentzia ez zetorren bat orduan indarrean zegoen araudiarekin. Zentzu berean, pertsona hori ezin zen garraio-bide-txartelaren titularra izan, eskatu zuela jasota ez dagoen horretan oinarrituta. Horrenbestez, udal lizentzian oinarritutako 2005eko urtarrileko garraio-bide-baimena ez da existitzen. Hala ere, dirudienez, foru aldundiak ez zuen egitate horren berri.

Urizaharreko lizentziaren esku-aldaketaren berri izan ez zuela onartuta ere, ez da ulertzen kontraesan hori ez egiaztatzea; izan ere, (...) jaunak garraio-bide-baimen berri bat zeukan, Lagraneko Udaleko 2004ko lizentzian oinarrituta. Hala ere, ez zen Urizaharreko Udaleko lizentzia egiaztatu, ezta berrikusi ere. Ondorio horietarako, gure ustez, aldundiak jasota zuen lehenengo lizentzia 1992koa izateak ez du axola; izan ere, antzintasun horrek ez zuen ahalbidetzen bigarren autotaxi lizentzia bat edukitzea, behin erkidegoko araudia indarrean egonda.

Izan ere, adibide gisa, orain, foru erakundeak 2015eko azaroaren 17an Urizaharreko Udalak lizentzia eskuz aldatzeko eta baimentzeko aukeren berri emateko igorritako txostenaren arabera, foru erakundeak baimena eskuz aldatzeko foru aldundiari aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean beren-beregi hartzen du barne **eskuratzailearen autonomi erkidegoan turismo-ibilgailuan bidaiariak garraiatzeko beste lizentzia baten titularra ez izatearen**







**aitorpena. Beraz, ondorioztatzen da beharrezkoa dela bermatzea erkidego eta estatu mailako araudiaren arteko koordinazio egokia bermatzea.**

4. Egoera hori egiaztatzeak kexa aurkeztu zuen pertsonak eskatzen dituen jarduketetan dituen ondorio juridikoei dagokienez, foru aldundiak uste du ezin dela onartu (...) jaunari emandako udal lizentziak indargabetzeko eskaera, udalen eskumena delako lizentziak ematea (2/2000 Legearen 3.3. artikulua), eta, horrenbestez, horiek indargabetzea ere bai. Hain zuzen ere, lizentzia baten baliogabetzea hori igorri duen eta horretarako eskumena duen administrazioak erabaki behar du, kasu honetan, Urizaharreko Udalak.

Hala eta guztiz ere, (...) jaunari emandako garraio-baimenak deuseztatzeari dagokionez, foru erakundeak hauxe adierazi zuen: *"En cuanto a la solicitud de anulación de las autorizaciones de transporte interurbano, procede señalar que si bien el art. 10.3 del Decreto 243/2002 establece que una misma persona no podrá "ser titular de más de una licencia y autorización", no obstante, tal y como se ha señalado anteriormente, esta regulación se refiere exclusivamente a las autorizaciones autonómicas, no a las autorizaciones de ámbito nacional que concede la Diputación Foral de Álava, y que se regulan por normativa estatal."*

Horrez gain, foru erakundeak hauxe adierazi zuen: *"En este sentido, la Orden de 4 de febrero de 1993, por la que se desarrolla el Reglamento de la Ley de Ordenación de los Transportes Terrestres en materia de autorizaciones de transporte discrecional de viajeros por carretera, regula en su art. 43 y siguientes, el régimen de las autorizaciones de transporte público interurbano en automóviles de turismo. En esta regulación no se contiene la imposibilidad de que una misma persona sea titular de más de una autorización."*

Hala eta guztiz ere, aurrerago adierazi egin den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona batek ezin du garraiobide-baimen bat baino gehiago eduki, erkidegoko araudiak udal eta erkidego lizentzientzat hori ezartzen duelako ez ezik, estatu mailako baimenak eskatzaileak udal lizentzia baten titularra izatearen menpe daudelako ere (Arautegiaren 123. artikulua). Kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoan inork ezin duela lizentzia bat baino gehiago eduki, ezingo du estatu mailako garraiobide-baimen bat baino gehiago eduki ezta.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da 2005ean eskuratutako eta udal lizentzia batean oinarritutako garraiobide-baimena ez dela existitzen. Izan ere, ez da jaso hori eskatu eta izapidetu zenik, dagokion prozeduraren arabera. Hori guztia, udal lizentziaren esku-aldaketaren legezkotasuna alde batera utzita, adierazi den bezala jarduketa honen xedea ez delako.

Ondorio horietarako, foru erakundeak aitortzen du (...) jaunak bi baimen izateak ez duela zuzenean horiek arautzen dituen estatuko araudia urratzen. Hala ere, hauxe adierazi du: *"no obstante, de manera indirecta, dicha*





*situación es contraria a la regulación de la licencia municipal de taxi, por lo que sí afecta a las autorizaciones de transporte de ámbito nacional".*

Hautemate hori gorabehera, foru erakundeak hauxe uste du: *"Dado que el Ayuntamiento de Peñacerrada dictó la Resolución de la Alcaldía nº 121/2015, de 15 de diciembre de 2015, autorizando la transmisión de la licencia municipal de D. (...), actualmente esta persona ya no posee ni dos licencias municipales de taxi, ni tampoco dos autorizaciones VT nacionales."*

Hain zuzen ere, aipatutako udal ebazpenaren oinarri juridiko nagusia foru erakundeko Baimenak Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Ataleko buruak igorritako txostena da (kexa aurkeztu zuen pertsonak egitateak salatu ostean); hala, ondorioztatu zen erkidegoko araudian aurreikusitako betekizunak betetzen badira, ez dagoela eragozpenik, ikuspegi juridikotik, garraiobide-baimenaren esku-aldaketa baimentzeko. Hala ere, adierazi den bezala, foru erakundeak existitzen ez den baimen baten esku-aldaketari eman dio oniritzia. Hori 2005ean emandako baimen batekin bat etorri behar zen, udal lizentzia berritik abiatuz.

Are gehiago, txostenak gertakizunak aztertzen ditu eta jotzen du, 1992ko lizentzia bat denez, indarrean zegoena udalerrri bakoitzarentzako lizentzien kupoak arautzen dituen 2005eko otsailaren 11ko agindua indarrean sartu zenean, gaitzeko titulua indarrean egongo litzateke oraindik. Hala, ez dago eragozpenik esku-aldaketa hori baimentzeko, Urizaharreko Udalak lizentziarik jasota ez duen arren.

Hala eta guztiz ere, aurreko gogoetak errepikatuz, Arartekoak uste du (...) jaunak hiri arteko garraiobideko bi baimen izateak estatu mailako araudia urratzen duela; izan ere, erkidego mailan, baimen horiek udal lizentzia baten segidako existentzia bateratuaren menpe daude. Egiaztatu den bezala, erkidegoko araudia aplikatuz, udal lizentzia bakarra eta garraiobide-baimen bakarra eduki daitezke.

Ondorio horietarako, Urizaharreko Udalak hasierako lizentziari, egindako esku-aldaketa desberdinei eta horien baliotasunari dagokienez burututako jarduketa berrikusi arren, jo behar da, berezko eskumenak baliatzean, foru aldundiak bere jarduketa berrikusteko ahalmena eta betebeharra dituela, Urizaharreko lizentzian oinarrituta garraiobide-txartela eskuz aldatzeko aldeko txostenaren igorpenean. Izan ere, egiaztatu egin da (...) jaunaren garraiobide-txartela ez dela 1992koa; hala, hoberena litzateke 2005eko urtarrileko udal lizentziatik abiatuz izapidetutako baimen batekin bat etortzea. Hala ere, hori ez zen egin eta, horrenbestez, eskuz aldatzen den garraiobide-txartel hori ez zen existitu beharko. Horrez gain, kontuan hartu behar da egiaztatu egin dela orduan jadanik (...) jaunak Lagraneko beste lizentzia baten titularra zela, dagokion hiri arteko garraiobide-txartelarekin.





Nolanahi ere, udal lizentzien eta garraio bide baimenen arteko konexioa dela eta, gomendagarria izango litzateke bi administrazioen artean koordinazioa eta lankidetzaren egotea, legez kotasanaren arabera emaitza lortzeko aipatutako administrazio-jarduketan berrikuspenean.

Horretarako, herri-administrazioek bere egintzak berrius ditzakete Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. eta 48. artikuluek aurreikusitako kasuetan eta aipatutako legearen 106. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozeduren arabera.

5. Azkenik, kexa aurkeztu zuen pertsonaren salaketa ebatzi zuen 2016ko otsailaren 5eko 275. Ebazpenean hauxe jasotzen da:

*"Incluir la presente cuestión en el Orden del Día de la siguiente convocatoria de la Comisión del Taxi del Territorio Histórico de Álava que se convoque, con objeto de que emita un informe sobre el modo de actuación coordinado entre los Ayuntamientos y la Diputación, cuando por parte de la Diputación se observe un incumplimiento de la normativa autonómica sobre licencias de taxi, o viceversa."*

Gaia Taxiaren Batzordean jorrotzen bada ere, herri-administrazio desberdinen kontsulta eta aholkularitza organo gisa, lotesleak ez diren txostenak igor dezakeen Arabako Foru Aldundiaren presidentetzarekin (243/2002 Dekretuaren 67. artikulua eta hurrengoak), foru aldundiak dagozkion garraio bide-txartelak baimentzeko jarraitzen duen prozedura berrikusi behar du, indarreko legeria betetzen dela eta udal lizentzien eta garraio bide baimenen arteko beharrezko koordinazioa bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egiten da:

## GOMENDIOA

1. Aurretik dagozkion izapideak egin ostean, (...) jaunak hiri arteko garraio-txartela bere semeari eskuz aldatzeko baimena berrikusteko.
2. Oro har, hiri arteko txartelak baimentzeko burutzen den prozedura berrikusteko, indarreko legeria betetzen dela bermatze aldera, baita udal lizentzien eta garraio baimenen arteko beharrezko koordinazioa ere.

